“Erosotasun Neurriak” eta Titianalgesia; Komunikatzeko modu berri bat.

Gema Bikuña Madrid
Leire Caballero Custodio
Isabel Lamas Fernandez
Alazne Larrea Reguero
Iñigo Bragado Berañan
Leire Santiso Solabarrieta
Ianire Beitia Goenaga
Ione Fernandez Iglesias,

OSI DEBABARRENA: Mendaro ospitaleko
Larrialdi Zerbitzua



OEE XXVIII Biltzarra. 2018ko maiatzaren 18-19, Arantzazu- Oñati

SARRERA

Oro har, haurren erizaintzan erabili diren **teknika eta diagnostikoen prozedurak gurasoen presentziarik gabekoak izan dira.**

Horrek estres psikologikoa eragiten zuen gurasoen zein haurrengan, profesionalenganako ezkortasuna adieraziz eta erabiltzaileen zein langileen harremanak zailduz.

Mina arintzeko, hainbat estrategia erabiltzen ditugu:

Farmakologikoak: EMLA, LAT(suturentzako pomada anestesikoa, oxido nitrosoa eta sudur barneko medikazioa).
Ez farmakologikoak: informazioa, arnasketak, abestea… Haurren nahiz gurasoen asistentzia hobetuz.

Beste pauso bat eman nahi genuen, eta **"Erosotasun-neurriak"** (Mary Barkey aitzindaria Erresuma Batuan) eta **Titianalgesia** sustatzen hasi ginen gure zerbitzuan.

- **HELBURUAK_____**

"Erosotasun-neurriak" eta Titianalgesia gure lankideen artean hedatzea da gure helburu nagusia, kalitatezko arreta integrala eskaintzen duelako.

- **METODOAK_____**

Lantaldea sortu.

Bibliografiak aurkitu.

"Erosotasun–neurri"en eta titianalgesiaren inguruan formakuntza-saioak eskaini larrialdietako lankideei.

Lehengo argazkia……..



Umearen ikuspegia:

- Bakardadea…
- Guraso gabe….
- Eutsita…..

Erizainok:

- Umea eusten…
- Umea inguratzen….
- Pertsona asko

Gurasoak:

- Urduri…
- Ate atzean…
- Kulpa sentsazioarekin….

Geroago……

lagunduta…
bakarrik ez…

Orain……

…..pausu bat gehiago……

“EROSOTASUN NEURRIAK”….

Haurra gurasoen magalean dagoelarik prozedura gauzatzean oinarritzen da (odola ateratzea, suturak, gernu bidezko edo sudur barneko zundaketa, jarioen xurgaketa...).

Modu horretan, haurra ez da bakarrik eta lotuta sentitzen, baizik eta gurasoen besarkada goxo batez bilduta.

Haurra ez dago esku-ohe hotz eta gogor baten gainean etzanda, ezta langileek eutsita eta inguratuta ere.

Gurasoak aktiboki parte hartzen laguntzen du haurrari eutsiz.

Haurra besarkatuta sentitzen da eta ez indarrez lotuta.

Gurasoen eta haurren arteko harreman eta komunikazio egokia lortuz gero, umea erosoago sentitzeaz gain, langileak eginbeharrekoak modu erosoagoan burutuko ditu.

Orain…

Odola ateratzeko, …

Odola ateratzen…..

Sudur barneko zundaketa

Jarioen xurgaketa….



Maskuri zundaketa

TITIANALGESIA

- Bularra ematean oinarritzen da, teknika egiten ari garen bitartean. Amagandiko edoskitzeak oinarri erlajanteak nahiz analgesikoak ditu.
- Etengabeko kontaktu fisikoa sustatzen da, haurraren mina arinduz eta haurra lasaituz.
- Amak jarrera aktiboa erakusten du.

Bibliografíako beste adibide batzuk……

besarkada

distrakzioa

OEE XXVIII Biltzarra.2018ko
maiatzaren 18-19, Arantzazu- Oñati

Bibliografíako beste adibide batzuk……..

ONDORIOAK

- Haurrak negar gutxiago egiten du, gurasoen magalean seguruago sentitzen direla ikusten da, estresa arinduz.

- Gurasoak lasaiago sentitzen dira, haurra babestuz eta parte hartuz. Pozik agertzen dira “laguntzaile” eta babesle izan direlako.

- Aldaketak gogorrak izaten badira ere, saio eta formakuntzen bidez profesionalen trebetasunak lantzen ari gara.
- Umeekin lan egiten dugun Beste unitateetan, neurri hauek martxan jartzea gomendatzen dugu, errazak eta eraginkorrak direlako.

Azken hausnarketa…….

Eta zuk ….

Zer nahiago duzu, indarrez lotuta egotea, edo indarrez besarkatuta ?

Guk argi daukagu…….

OEE XXVIII Biltzarra.2018ko maiatzaren 18-19, Arantzazu- Oñati

Eskerrik asko